


Izen-abizenak: _____

Data: _____

Izenburua: _____

1.- Jarduera.

a) Ordenatu itzazue hurrengo hitzak gure proiektuaren izenburua lortzeko. Ondoren, idatzi goian gure proiektuaren izenburua.



b) Bilatu ezazue “*garden*” hitzaren esanahia hiztegian edo/eta interneten eta erantzun galderei:

- Zenbat esanahi ezberdin ditu “*garden*” hitzak? Nola jakin duzu hori? Azaldu.
- Nola deitzen zaie esanahi bat baino gehiago duten hitzei? Eta esanahi bakarra dutenei?
- “*Garden*” hitzaren esanahi guzti horietatik zein dator bat gure izenburuarekin? Idatzi.

Urak ez du kolorerik. Ura gardena da. Hurrengo argazki artistikoek hori egia dela erakusten digute?

Baieztatu dezagun guk geuk ere hipotesi hura. Ura gardena dela frogatzeko, beraz, **saiatu zaitezte argazki artistikoren bat ateratzen** edo bat baino gehiago. Gidatu zaitezte argazki hauetatik eta lortu zuen argazki propioa sortzen. Ondoren, zuen **irakaslearen korreora bidali** eta zuen **ikaskideekin partekatuko** du. Sortu dezagun guztiok elkarren artean *collage artistiko bat*.



c) Jarraitzeko, norberak bilatu eta aukeratu dezala “ura”, “agua” edo “water” hitzei buruzko abestiren bat.

- Zein da aukeratu duzun abestiaren izenburua?
- Nor da abesti horren egilea/artista?
- Ikasi ezazu abesti/olerki horren estrofarik garrantzitsuena. (**Adi!** Bideodeia bidez elkar ikusten dugun hurrengo egunean abestuko diguzue!).
- Nola du izena abesti batean gehien errepikatzen den estrofa?